



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, MAIATZAREN 15EKO 73/2012 DEKRETUAREN ERANSKINA EGUNERATZEN DUEN (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIBATUETAN IRAKASGAIK EDO IRAKATS-ARLOAK ATZERRIKO HIZKUNTZETAN EMATEKO HIZKUNTZA-GAITASUNAK EZARRI ETA TITULU ETA ZIURTAGIRIAK ERREKONOZITZEN DITU DEKRETU HORREK) XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.

Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren bidez atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriak aitortzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dira.

Dekretu horren eranskin bakarrean hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuko B2, C1 eta C2 mailetako titulu eta ziurtagiriak jasotzen dira, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan gaiak edo ikasgaiak emateko behar den hizkuntza-gaitasuna frogatzen dituztenak.

Aldian-aldean, hizkuntzen titulu eta ziurtagiri berriak sortzen direlarik, gure erkidegoan ikasgaiak unibertsitatez kanpoko mailetan atzerriko hizkuntzetan emateko onartzen diren titulu eta ziurtagiri horiek zeintzuk diren ezartzen duen eranskina eguneratu beharra planteatzen da.

Orain, Hezkuntza Sailak berak Agindu hau aurkeztu du, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunak ezarri eta titulu eta ziurtagiriak errekonozitzen dituen maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, Arau-xedapenaren proiektua: kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.

Kontsulta alderdi hauei buruzkoa izan behar da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.



d) Aukera alternatibo erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Hori dela eta, xedapen orokorra egin aurreko kontsulta-izapidea bete nahi da, arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek aukera izan dezaten parte hartzeko eta planteatzen den arauari ekarpenak egiteko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta erakunde, entitate edo elkarte guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun baliouduneko epea ezartzen da eraginpeko erakundeek, herritarrek eta beren erakundeek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasean.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunak ezarri eta titulu eta ziurtagiriak errekonozitzen dituen maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzeko aginduaren proiektua jendaurrean jartzea, hura egin aurretik.

Bigarrena.- Arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek, hala nahi izanez gero, hamar egun baliouduneko epea izango dute agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria- Gasteiz, 2021eko irailaren 14an

JOKIN BILDARRATZ SORRON
CONSEJERO DE EDUCACIÓN